



BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO



GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUM II-III

IKASLE GIDA

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen zerbitzua/Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco UPV/EHU.

Gizarte Hezkuntzako Praktikumena Gida
2025-2026 ikasturtea.

Guía del Practicum de Educación Social
Curso académico 2025-2026.

Lan taldea/Equipo de Trabajo:

Maria Dosil Santamaria: Gizarte Hezkuntzako Graduaren eta Transferentziaren dekanordea, Bilboko Hezkuntza Fakultatea/Vicedecana del Grado de Educación Social y Transferencia de la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU).

Idoia Fernández Fernández: Gizarte Hezkuntzako Practicumen Batzordeko kidea, Bilboko Hezkuntza Fakultatean/Miembro de la comisión del Practicum de Educación Social de la Facultad de Educación de Bilbao (UPV/EHU).

AURKIBIDEA

1.	GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUM II-III. AURKEZPENA	5
2.	GIZARTE HEZKUNTZAKO KODE DEONTOLOGIKOA	7
3.	PRACTICUMAREN XEDEA ETA IKASKUNTZA EMAITZAK	9
4.	LAN SEKUENTZIA ETA METODOLOGIA	11
	4.1. Practicumean abiatzea	12
	4.2. Practicumaren lehen epea: lanbidean txertatu eta behaketa parte-hartzailea	14
	4.3. Practicumaren bigarren epea: esku-hartzea eta rol profesional autonomoa gauzatzea	15
5.	PRACTICUMAREN EBALUAZIOA: OROITIDAZKIEN EGITURA ETA BESTE JAKINGAI BATZUK	17
	5.1. Practicum amaierako txostenak	17
	5.2. Ebaluaziorako baldintzak eta kalifikazioak	20

1.

GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUM II-III. AURKEZPENA

Ikasle-gida honetan Gizarte hezkuntzako 4. mailan burutzerazko Practicum II-III-aren jarraibide nagusiak zehaztu nahi dira, prozesu honetan zehar kontsultatu eta zalantzak argitzeko lanabes gisa erabil dezazun. Bertan ez da informazio guztia egongo baina bai ipar-orratz moduan erabil litezkeen erreferentziak eta jakingaiak.

Practicum II-III-ek zure unibertsitate prestakuntzan funtsezko papera jokatzen dute. Ofizialki bi irakasgai diren arren, azarotik maiztuzera luzatzen den prozesu bakar moduan ulertuko dugu. Denbora tarte horretan entitate eta instruktore berdinarekin lan egingo duzu eta fakultatean tutore bakarra izango da ikaskuntzaren arduradun. Jarduera luze honen helburu nagusia unibertsitatean ikasitakoa zeregin profesionalarekin harremanetan jartzea, testuinguru errealean gertatzen diren praktika profesionalaren nondik norakoak behatzea eta esku-hartze zuzen bat praktikan jartzea da. Horrela, hezkuntza eta gizarte errealitatean murgildu eta bere zentzuaz ohartuko zara, gizarte hezitzaile gradua lortzean oinarritzko autonomia bereganatu duzula ziurtatuta.

Practicuma zure ikaskuntza profesionalerako denbora tarterik nagusia da eta horretarako bost hilabetez 30 ECTS kreditu, hau da, 750 ordu lan aurreikusten dira (ikus 1. taula). Ikusten duzunez graduan izango duzun irakasgairik luzeena da eta antolakuntza aldetik zalantzarik gabe kon-



Kontsultatu

Practicum II

[kudeaketa egutegia](#)

Practicum III

[kudeaketa egutegia](#)

plexuena. 1. taulan, orientabide moduan, gutxi gorabeherako datak agertzen dira baina oso garrantzitsua da ikasturte bakoitzean Practicumeko kudeaketa egutegia kontsultatu eta eskura edukitzea, lan pertsonala, entitateko praktikak fakultateko prestakuntza jarduerak eta tutoretza lana antolatzeke eta koordinatzeko.

1. taula.
Practicuma II-III. Ezaugarri nagusiak

	Practicum II	Practicum III
Kredituak	12 ECTS	300
Orduak	18 ECTS	450
Hasiera	Azaroaren 4. astea	Urtarrilaren 4. astea
Bukaera	Urtarrilaren 3. astea	Apirilaren 4. astea
Ebaluazioa	Urtarrilaren 4. astea	Maiatzaren 1go astea

Horrez gain, Practicuma arautzen duten hainbat dekretu eta arautegi daudela jakin behar duzu eta komeni da horiek kontsultatzea zalantzarik izanez gero¹.

Maila operatiboago batean erreferentziazko pertsonak dituzu, Practicumari buruzko zalantzarik izanez gero hauengana jotzeko:

- Praktiken arloko dekanordea Gizarte Hezkuntzako graduari: [✉ \(bhf.practicum-gh@ehu.eus\)](mailto:bhf.practicum-gh@ehu.eus).
- Arloko administrazio arduraduna: [✉ \(bhf.practicum@ehu.eus\)](mailto:bhf.practicum@ehu.eus)
- [✉ Practicumaren koordinatzaileak](#)

¹ [✉ Erabakia, 2019ko uztailaren 24koa](#), Graduak eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordearena eta Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordearena, UPV/EHUko ikasleen kanpoko praktika akademikoen arautegia onartzeko dena, Gobernu Kontseiluan 2019ko uztailaren 12an onartutakoa; [✉ 592/2014 Errege Dekretua](#), uztailaren 11koa; UPV/EHUren Kudeaketa Akademikoko Araudia (IX. kapituluak 72. artikulua zehazten ditu Graduak Practicumaren oinarriko alderdiak); eta [✉ Practicumaren Araudi Orokorra](#), Fakultateko Batzarrek 2021eko uztailaren 6an onartua.

2.

GIZARTE HEZKUNTZAKO KODE DEONTOLOGIKOA

Gizarte hezitzaileek oso eremu desberdinetan lan egin dezakete baina nagusiki gizarte ikuspegitik zaurgarriak diren pertsona eta kolektiboekin arituko dira: haurrak, nerabeak, gazteak, helduak, adinekoak, gutxiengo etnikoak, emakumeak, drogaren mende dauden pertsonak, dibertsitate funtzionala dutenak, migratzaileak, gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten kolektiboak, eta, oro har, komunitate osoa.

Pertsona eta kolektibo hauekin lan egiteak enpatia eta etika profesionala eskatzen ditu, izan ere, nahi gabe berez kalteberak diren horiek zure praktika desegoki baten ondorioz are gehiago kaltetzeko arriskua baitago. Horrexegatik, pertsonekin lan egiten den lanbide guztietan bezalaxe, oso garrantzitsua da etika protokoloak argi edukitzea.

🔗 [Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoak](#) profesioaren arlo horiek zaindu eta gidatzen ditu, eta ezinbestekoa da lanbidean jarduteko printzipioak ezartzen dituen 🔗 [kode deontologikoa](#) kontuan hartzea. Practicum II eta III-an eta graduatua zarenetik aurrera jarraian azaldutakoaren arabera jokatzea espero da zugandik:

1. Profesionalki esku hartzea Gizarte Hezkuntzaren testuinguruetan, gizarte hezkuntzarekin lotutako diziplinen oinarri teoriko-praktikoen gainean, kontuan izanik gako etikoak eta deontologia profesionalarenak.

2. Hezkuntza arloko ekintzen erantzukizuna onartzea, nortasun profesionalaren aitortzatik eta gizarte hezitzailearen funtzio profesionaletatik abiatuta.
3. Elkarlanean eraikitzea Gizarte Hezkuntzaren izate eta egite profesionalaren gaineko ezagutza, ikerketaren eta praktika-
ren analisiaren bidez.
4. Argudio bidez komunikatzea, bai idatziz bai ahoz, gizarte hezitzaileen lan profesionalari buruzko gogoetak, baita hezitzailearen erakundearen kulturari buruzkoak ere.
5. Gizarte-hezkuntza arloko ekintzak go-goeta eginez planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea, Gizarte Hezkuntzako eremu-
muetan, erreferentziatzat harturik errealitate zehatz baten diagnostikoaren on-
dorioak.
6. Gizarte Hezkuntzaren esparruko prozesu, testuinguru eta baliabideak aberastu eta hobetzeko proposamenak eta tresnak lantzea.
7. Lan gaitasuna diziplinarreko eta erakunde-arte-
ko taldeetan.

Fakultateko mintegietan aukera izango duzu Gizarte Hezitzaileen Kode Deontologikoan sakontzeko eta batez ere, pasarte kritikoak idazten dituzunean portaera profesional zuzen eta etikoa nola erabaki eta bideratu ikasteko.



ETHICS

Gizarte hezitzaileak bere eguneroko jardunean pertsona eta kolektibo kalteberekin aritzen dira eta sarritan erabaki zailak hartu behar dituzte. Horrelakoetan Kode Deontologikoak ezinbesteko tresnak jokabide zuzena ebazteko edo behintzat orientatzeko.

3.

PRACTICUMAREN XEDEA ETA IKASKUNTZA EMAITZAK

Graduak zehazten duenaren arabera Practicuma jarduera eta prozesuen multzo bat da, zeinean benetako agertoki profesionaletan esku hartuko duzun, eta, laneratzeko prozesua eta hezitzaileen taldeetan integratzea lortuko duzun. Kanpoko praktika horiek profesionalizazioan laguntzen dute, ezagutza zientifikoa eta jakintza profesionala ahalik eta modurik zuzenenean uztartzeko aukera emango baitizute. Horrela, **epaimen pedagogikoa** garatzen hasiko zara, hau da, egoera profesional ezezagunetan analisia egin eta erabaki arrazoituak eta etikoki zuzenak hartzeko autonomia.



Practicumeko xede nagusia epaimen pedagogikoa garatzea da, hau da, edozein egoera profesionalean zaudelarik zure ekintza gidatuko duten ideiak finkatzen joatea da. Urte asko igaroko duzu epaimen gaitasun hau ontzen baina hasiera practicumean emango diozu.

Horretarako ikaskuntza-emitza (IE) jakin batzuk erdietsi beharko duzu hilabete hauetan zehar. Honakoak zehazki:

- IE1. Practicum II eta III-ko dokumentuak erantzukizunez, eraginkortasunez eta zorroztasunez kudeatzea, besteak beste, Adingabeekin lan egiteko sexu-izaera delitu ziurtagiria, konfidentzialtasuna gordetzeko konpromiso-dokumentua, prestakuntza plana, entitatearekin adostutako egutegia, irteera baimenak edota kasu berezien eskaera (hala balegokio).

- IE2. Practicuma burutuko den entitatea eta arloaren kanpo eta barne logikak (lege markoak, erakunde izaera, finantziarioa, antolamendua, eta abar) eta lanean arituko den kolektibo espezifikoaren babesten duten markoak menperatzen eta ulertzen direla demostratzea.
- IE3. Practicuma burutuko den entitatearen lan dinamikan txertatzea eta ikasle roletik rol profesionalerako iraganbideko galderak, zantzak eta dilemak hauteman eta teorizatzea, norberaren autonomiari oinarria jarritz.
- IE4. Esku-hartuko den pertsona edota taldearen beharren hasierako diagnostikoa egitea, teknika desberdinak erabiliz (behaketa, elkarrizketak, dokumentazioaren kontsultak) eta ebidentziak bilduz.
- IE5. Esku-hartzearen diseinua zehaztu, garatu eta ebaluatzea, ezagutza zientifikoa eta profesionalen jakintza praktikoa aintzat hartuz eta etika profesionalaren printzipioak gordez.

4.


LAN SEKUENTZIA ETA METODOLOGIA

Prozesu horretan erdiesten joango zaren ikaskuntza-emaitez ez dira aldi berean denak landuko, urratsez urrats egiten zoazen segida edo sekuentzia batean antolatuko dira benetan egingarriak izateko.

11

1. Irudia.

Practicuma II-III. Lan sekuentzia



Aurreko irudian prozesuaren mugarriak islatu ditugu, baina oro har, prozesu honek lau une garrantzitsu ditu, jarraian xehetasunez aztertuko dugun bezala.

4.1. Practicumean abiatzea

Practicuma entitatera joan aurretik hasten da eta komeni da indukzio fase hori zertan datzan ondo ulertzea eta batez ere zuk zure denbora eta eginbeharren planifikazio zehatz bat egitea.

Praktikak ofizialki zein egunetan hasi behar diren ikasturte bakoitzaren egutegian iragartzen da, baina normalean azaroaren azken astean izaten da. Hori baino aste bete lehenago honakoak kontuan hartu behar dituzu:



Zaindu arretaz Practicuma abiatzeko kontuan hartu beharreko guztia. Egin ezazu plangintza bat agenda jakin batekin; ez utzi eginbeharrekoak azken momenturako eta batez ere zaindu aurkeztenduzun dokumentazioaren itxura formala. Mundu profesionalean sartzen ari zara.

- Fakultateko prestakuntza jarduerara joan behar duzu. Normalean saio monografikoak izaten dira, gai jakin batzuk trinkotasunez lantzeko. Practicumaren abiatzean oso garrantzitsua da dokumentu ofizialak kudeatzeko gaitasuna garatzea. Izan ere, orain arte «ikasle» batek egindako dokumentuak sortu dituzu baina une honetatik aurrera administrazioarekin eta kanpo entitateekin harremanetan hasten zaren neurrian, balio ofiziala duten dokumentuekin arituko gara. Prestakuntza jarduera honetan, besteak beste, dokumentu hauek zein diren, elektronikoki nola bete eta aurkeztu, sinadura elektronikoa nola lortu, ofimatikako oinarritzko lanabesa batzuk nola erabili eta abar landuko dira. Jarduera hau derrigorrezkoa da eta funtsezkoa da entitateekin egin beharreko lana zuzen egiteko.
- Fakultateko lehenengo mintegia. Normalean entitateetara joan aurreko egunetan egiten da; fakultateko tutoreak berak deituko du eGelako Practicum II-III-ko gunetik. Lehenengo mintegi honek lanaren antolaketan jartzen du arreta eta praktiketako txertaketa egiteko jarraibideak emango zaizkizue.
- Praktiketako hasiera data ofiziala baino lehen harremanetan jarri behar zara entitate kolaboratzailearekin, praktikak noiz hasi-

ko dituzun (eguna eta ordua) zehazteko, eta harrera egingo dizun pertsona nor izango den jakiteko (baliteke egun horretan zure erreferentziazko instruktorearekin ez egotea).

Praktiken lehenengo egunean, eranskinak² entregatu behar dituzu praktikak egingo diren entitatean, aurreko egunetan erakutsi dizuten moduan. Practicumari buruzko  [dokumentazio](#) guztia fakultatearen web orrialdean eskura daiteke, praktiken dokumentazio atalean.

Zentro kolaboratzailean eginiko praktiken lehenengo bi-hiru asteetan, instruktorearekin batera praktikak planifikatuko behar dituzu zure prestakuntza prozesuaren parte gisa. Deskargatu egin behar da  [dokumentazio atalean](#)³. Eranskin horrekin batera, zure praktikak planifikatuko dituzu, egutegia eta ordutegia zehaztuta. Garrantzitsua da fakultateko prestakuntza jarduerak eta tutorearekin finkatutako mintegiak eta bakkarkako tutoretzak plangintza horretan ere sartzea. Horrez gain, zehaztasunez deskribatu behar dira entitatearen zentroan bete beharreko zereginak. Gainera, ikasleek  [baimen agiri bat](#) sinatu beharko dute, baldin eta praktikak egingo dituzun zentrotik kanpo aritu behar baduzu (adibidez kanpo jarduera batean, ibilaldi batean...).

Adierazleak⁴: eranskinak bateratu egin beharko dira dokumentu bakar batean egutegia, ordutegia, zereginak eta entitate-zentro kolaboratzaileetik kanpo eginiko irteeren dokumentua, PDFn, eta hiru aldeek sinatu beharko dute (ikaslea, instruktorea eta fakultateko tutorea). Aurkibide batekin eta ordenatuta entregatuko da.

Eranskin hauek guztiak egela-n ere izango dituzu eskuragarri eta editatzeko moduan. Word-en egongo dira. Ordenagailuz bete behar dira eta zuen sinadurak elektronikoki egin. Zuen instruktoreak holakorik ez badu, dokumentua eskuz sinatu, eskaneatu eta pdf bihurtu, gero zuk elektronikoki sinatu ahal izateko.

² Eranskinetako dokumentuak nahitaez bete behar dira, eta zure erantzukizuna da dokumentu horiek entregatzea eta Practicum II-ko azken txostenean eranstea. Kalitatea eta irizpide komunak bermatu behar dira, Practicuma behar bezala garatzeko.

³ Dokumentazio guztia eskura daiteke fakultatearen web orrialdean, praktiken bannerran.

⁴ Ez da onartuko eskuz idatzitako dokumenturik, pantaila edo irudi argazki bidez eginiko dokumenturik, ezta epeaz kanpo aurkeztutakorik ere.

4.2. Practicumaren lehen epea: lanbidean txertatu eta behaketa parte-hartzailea

Abendua eta urtarrila bitartean, Gizarte Hezkuntzako arlo profesionalean sartuko zara bete betean. Ezagutzen ez duzun arlo eta pertsonekin aritu beharko duzu eta horrek denbora, lana eta patxada eskatzen ditu. Dena ez duzu lehen egunetik ulertuko. Seguraski hasieran profesionalengana eta erabiltzaileengana hurbiltzea kostatuko zaizu, zeren horretarako harremanetarako eta enpatiarako trebetasunak probatu eta entrenatu behar baitira. Pazientziaz hartu.

Lehenengo bi hilabete hauetan, lehen aipatutako dokumentuen kudeaketaz aparte, zugandik espero dena da inguru horretan egoki txerta zaitezten. Zure lan nagusia behaketa parte-hartzailea izango da, hau da, behaketa egitea inguru horretan gertatzen denaz ohartzeko (Ikus IE2) eta aldi berean han dauden pertsonak ezagutu eta haiekin harreman profesional eraikitzen hasi.

Behaketa parte-hartzaile horrek bi emari/produktu nagusi izango ditu, fakultateko mintegietarako entregatu eta aztertuko direnak:

- a. Zure entitatea eta arloaren kanpo eta barne logikak zein diren ikertu beharko duzu (lege markoak, erakunde izaera, finantziarioa, antolamendua, eta abar) baita lanean arituko den kolektibo espezifikoak babesten duten markoak ere. Horretarako instruktorearekin eta bertako profesionalekin informazioa jaso beharko duzu eta inguru horretan maneiatzen diren dokumentuak eskuratu eta aztertu ere.
- b. Pasarte kritikoa. Teknika hau mintegietan erabiliko da eta lehen fase honetan arreta jarriko du rol profesionala hartzean bakoitzari sortarazten zaizkion zalantzak, beldurrak, dilemak edo kontraesanak azalaraztean eta aztertzean. Ariketa introspektiboa da eta norberak dituen sentipenak, aurreiritziak edota alboraketak arrazionalki analizatzeko aukera ematen du.

Entitatean hau gertatzen den bitartean, fakultateko hiru mintegietan lan partzialak entregatuko dira eta tutoreak feed-backa emango du, banaka edo taldeka emari horien kalitatea doitzeko. Horrela, mintegia batetik hurrengora dagoen hilabeteko denbora tarte horretan ezarritako lanak entregatuko dira eta oinarri bezala erabiliko dira gogoeta eta analisisa egiteko.

Lan egiteko modu iraunkor honek asko errazten du azken oroitidazkiaren prestaketa. Unean uneko lana egin bada, azken txostena azkar prestatzen da eta kalitatez gainera.

4.3. Practicumaren bigarren epea: esku-hartzea eta rol profesional autonomoa gauzatzea

Urtarrilaren amaieran Practicum II-aren lehen oroitidazkia aurkeztuko duzu. Lan honen azkenengo atalean Practicum III-ean garatu behar duzun esku-hartze posibleetarako lehen hurbilketa idatziko duzu. Izan ere, behaketa parte-hartzailean egon zaren bitartean lankideekiko elkarriketak izan dituzu, haien esku-hartzeak ikusi dituzu, zu zeu ere aritzeko aukera izan duzu... eta elkarrekintza gurutzatu eta egunero-ko horietan erabiltzaileen edo taldeen beharrak ikusten hasi zara. Hein batean rol profesianlean sartzeko baldintzak ondu direla esango genuke eta hor tartean ideiak eta proposamenak sor daitezke.



Esku-hartzea diseinatu aurretik, instruktorearen, fakultateko tutorearen eta zure artean hezkuntza behar zehatza zein den definitzeko hitz egin beharko duzue. Otsaileko lehen asteko bakarkako tutoretzan guztiz finkatuko da.

Dena den, hastapeneko ideiak baino ez dira eta esku-hartze proposamen gisa finkatzeko instruktorearekin eta fakultatearekin batera esku-hartze eskaera zehaztuko dugu. Oreka bilatu behar dugu entitatearentzat, erabiltzaileentzat eta zuretzat interesgarriak eta egingarriak diren aukeren artean. Une kritikoa da eta ondo landu behar da, horregatik, otsailean lehen astean fakultateko tutorearekin bakarkako tutoretza izango duzu. Hiruren arteko lanketa horretatik eratorriko da esku-hartzeko eskaera.

Behin esku-hartzeko eskaera adostu denean, Practicumeko lan teknikoen egin beharko duzu:

- Gizarte eta Hezkuntza behar zehatzaren diagnostikoa egin behar duzu, graduari zehar izan dituzuen irakasgaietatik eta une horretan kontsultatzen duzunetik funtsak hartuz eta batez ere ebidentziak jasoz.

- Horretan oinarrituta esku-hartzerako diseinua prestatu beharko duzu: abiapuntua, esku-hartzetik espero diren lorpenak, metodologia, baliabideak eta ebaluatzeko tresnak. Diseinu horiek fakultateko laugarren mintegian aztertuko dira, baita fakultateko tutorearekin bakarka nahi izanez gero.

Otsailetik maiatzera bitartean garatuko duzun lanak, baina, alde teknikoaz gain badu alde konplexuagoa baina hain ikusgarria ez dena eta da zu zeu gizarte hezitzaile gisa zure identitatea eraikitzen ari zure zurela, modu trinkoan gainera. Esku-hartzeari forma ematen diozun neurrian, praktika profesionalean aktibatzen hasten zara. Egia da aurreko hilabeteetan entitatean murgilduta egon zurela eta ekintzetan eta lanetan parte hartu duzula, baina fase honetan zuk zeuk esku-hartze prozesu oso bat arrazoi-tu, funtsatu, irudikatu, garatu eta ebaluatu beharko duzu; zentzu horretan profesional autonomo bezala burutuko duzun lehen prozesua da.

Halako prozesuak barrenak mugitzen dizkizu. Arlo emozionalak eta harremanezkoak pisu berezia hartzen dute, eta kognitiboarekin batera eraman behar dira aurrera. Barne bizipen hauek ezin dira izendatu eta aztertu gabe geratu, praktika profesionalean parte ere badira. Horregatik berriro ere pasarte kritikoa erabiliko dugu, esku-hartzeari buruzko introspekzioari atea irekitzeko eta hor askatzen diren dilemak, frustrazioak, beldurrak, ilusioak, igurikapenak bere tokian jartzeko.

Laugarren eta bosgarren mintegietan landuko dira aipatutako gai hauek, eta, tartekako eginbeharrek, eGelatik kudeatuko ditugunek, aukera emango digute eztabaidatzeko, sakontzeko eta teoriak informatutako praktika burutzeko. Lan iraunkor horretatik eratorritako lanak azken oroitidazkia osatzeko piezak izan dira, azken bakarkako tutoretzan borobilduko ditugunak.



Oro har, bost mintegi, bakarkako bi tutoretza, fakultateko prestakuntza jarduerak izango dira lan modalitate nagusiak. eGelaren bidez lana iraunkorki bideratuko da, unean uneko emariak, feed-backa eta pasarte kritikoa tartean.

5.

PRACTICUMAREN EBALUAZIOA: OROITIDAZKIEN EGITURA ETA BESTE JAKINGAI BATZUK

Practicumean garatuko diren ikaskuntza emaitzak noraino lortu dituzun ebaluatu behar da. Honetarako bi tresna daukagu: batetik fakultateko tutoreak ebaluatu behar dituen Practicum II eta Practicum III-ko oroitidazkiak (memoria txostenak) eta bestetik entitateko instruktoreak zuk bertan egin duzun praktikaren balorazio-txostena.

17

5.1. Practicum amaierako txostenak

Atal honetan arreta jarriko diogu lehenengoari, zeren zure aldetik denbora, arreta eta esfortzua eskatzen baitu eta azken kalifikazioaren zati garantzitsua delako.

Bi oroitidazki egin beharko duzu. Txosten bakoitzak 20-25 orrialde izango ditu (lehen orrialdea, aurkibidea, erreferentzia bibliografikoak... kenduta), 1,5eko lerroartea eta Times New Roman 12 letra. Lehenengo orrialdean erantsi edo idatzi beharrekoak: goialdean, bi logoak (Hezkuntza Fakultatea eta erakunde kolaboratzailea); erdian, «Practicuma II/III-aren amaierako txostena» edo «Practicuma II/III-aren amaierako oroitidazkia», gehi ikasturtea eta erakundearen izena; azkenik, behealdean eskuinean, egilea, UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko tutorea, gradua eta entregata data (egutegiaren arabera).

Practicum II-aren oroitidazkia azarotik urtarrilera arte egindakoaren inguruan ardaztuko da eta IE1, IE2 eta IE3 ikaskuntza-emaizak ebaluatuko ditu. Urtarrilaren amaieran entregatu eta kalifikatuko da. Hau ezinbestean gainditu behar da praktikekin aurrera jarraitzeko.

2. taula.

Practicuma II-aren azken txostenaren egitura

PRACTICUM II-aren azken oroitidazkia

1. SARRERA

2. HURBILPEN OROKORRA: PRAKTIKETAKO ENTITATEAREN EZAUGARRIAK ETA BALIABIDEAK

- 2.1. Entitatea deskribatzeko datuak
- 2.2. Entitatearen jatorria eta bilakaera, sortu zenetik gaur arte
- 2.3. Entitateak lan egiten duen gizarte hezkuntzako esparruaren ezaugarriak
- 2.4. Egitura (organigrama), funtzionamendua eta finantzia-zioa
- 2.5. Entitatearen jardueraren oinarrian dauden lege esparru nagusiak

3. HURBILPEN XEHEA: PRAKTIKA EGITEN DEN ZERBITZUA, PROIEKTUA EDO PROGRAMA

- 3.1. Helburuak
- 3.2. Pertsona hartzaileen profila
- 3.3. Talde profesionalaren ezaugarriak eta haren funtzioen definizioa
- 3.4. Programako esku-hartzearen eredu metodologikoa
- 3.5. Baliabidearen koordinazioa ingurune komunitarioarekin

4. PRAKTIKA PROFESIONALERAKO IRAGANBIDEAREN AZTERKETA

- 4.1. Pasarte kritikoa (erregistroa)
- 4.2. Pasarte kritikoaren ziklo analitikoa (inspirazioa, konfrontazioa eta berreraikuntza)

5. PRAKTIKAK EGITEN DIREN TESTUINGURUAN AURREIKUSITAKO ESKU-HARTZE AUKERA POSIBLEAK

- 5.1. Erakunde kolaboratzailean detektatutako premiak eta esku hartzeko aukera bideragarriak

6. ERANSKINAK

Practicuma abiatzeko sortu diren dokumentuen bilduma

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Otsailean bertan ematen zaio hasiera Practicum III-ari, aurreko lanarekin modu naturalean jarraipen gisa. Ez dago, beraz, lanean etenik. Otsailetik maiatzera egin beharreko lanak bi ikaskuntza-emaiza barne biltzen ditu, IE4 eta IE5. Lanari forma emateko honako eskema iradokitzen dizugu.

3. taula.

Practicuma III-aren azken txostenaren egitura

PRACTICUM III-aren azken oroitidazkia

1. SARRERA
2. HEZKUNTZA BEHARRAREN DIAGNOSTIKOA ETA GIZARTE-HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZEA MUGATZEA
 - 2.1. Hezkuntza beharraren inguruko eskaera
 - 2.2. Hezkuntza beharraren diagnostikoa: tresnak eta ebidentziak abipuntua zehazteko
3. ESKU-HARTZEAREN DISEINUA, GARAPEN ETA EBALUAZIOA
 - 3.1. Esku-hartzearen helburu orokorra eta erabiltzaileekin erdietsi nahi diren lorpen espezifikoak
 - 3.2. Metodologia eta jarduerak
 - 3.3. Kronograma eta baliabideak
 - 3.4. Gizarte-hezkuntzako esku-hartzearen ebaluazioa
4. ESKU-HARTZE PROFESIONALAREN AZTERKETA
 - 4.1. Pasarte kritikoa (erregistroa)
 - 4.2. Pasarte kritikoaren ziklo analitikoa (inspirazioa, konfrontazioa eta berreraikuntza)
5. PRACTICUM II-III: BALORAZIO PERTSONALA
 - 5.1. Antolamendu orokorra; entitatea eta instruktorea; fakultatearen eta entitatearen arteko koordinazioa; fakultateko tutorearen lana (mintegiak eta bakarkako tutoretzak).
 - 5.2. Practicumak eragin dituen ikaskuntzak
 - 5.3. Hobetu beharrekoak
6. ERANSKINAK
7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

5.2. Ebaluaziorako baldintzak eta kalifikazioak

Aurreratu dugun bezala, ebaluaziorako kontuan hartuko da ikasleek eginiko lana, bai fakultatean (prestakuntza jarduerak eta mintegiak fakultateko tutorearekin) bai entitate kolaboratzailean. Practicumaren ebaluazio positiboa lortzeko, gainditu egin beharko da bai fakultatean bai praktika zentroan eginiko lana (ikus 4. taula). Jarraian azaltzen dizkizugu zein diren ebaluaziorako baldintzak eta betebeharrekoak. Irakur itzazu arretaz eta kontuan hartu.

4. taula. Practicum II-III. Amaierako kalifikazioen haztapena

Agente ebaluatzailea	Ebaluazioa	Emandako ehunekoa
Fakultateko tutorea	Tutoretza mintegiak Amaierako txostena	% 60*
Entitateko instruktorea	Ebaluazio errubrika	% 40**
Praktiken Batzordea	Prestakuntza jarduerak	Zereginik ez*

* tutoretza/jarraipen mintegietara **ez joateak** 0.5 puntu kenduko dizkio amaierako notari berrataratu gabeko egun bakoitzeko (gehienez 3 puntu). Mintegiak presentzialak eta derrigorrezkoak dira.

** entitate kolaboratzailean eginiko praktiketan **EZ-GAI** kalifikazioa duten ikasleek berriro egin beharko dituzte praktikak, dagokion aldian. Hau da, berriro matrikulatu beharko dira Practicum II edo/eta III-rako hurrengo ikasturtean. Ezin izango dira aurreratu inola ere. Atal honetan GAI izateak ez du irakasgaia gainditzetik salbuesten, atal guztiak gainditu behar direlako.

* prestakuntza jardueretara ez joateak edota zereginak ez egiteak 1.5 puntu kenduko dizkiote amaierako notari.

Praktikak **ez-gainditutzat** hartuko dira honako kasuetan:

- Praktiketako entitatean justifikaziorik gabe bi huts baino gehiago eginen bada ez-gainditutzat hartuko da irakasgaia, eta praktikak errepikatu egin beharko dira.
- Erakunde kolaboratzaileko instruktorearen kalifikazioa 5etik beherakoa bada (10etik), ez-gainditutzat hartuko da irakasgaia, eta praktikak errepikatu egin beharko dira.

- Atal guztiak bateratu ondoren, fakultateko tutoreak **gutxiegi** gisa ebaluatzen badu ikasleak eginiko lana, ez-gaindituztat hartuko da irakasgaia. Ikasleak bigarren deialdi batera aurkeztu beharko du (ezohiko deialdia), eta azken txosten berria egin. Kasu honetan, ez badu irakasgaia gainditzen, praktikak errepikatu beharko ditu hurrengo ikasturtean.
- Amaierako txostenak ez badu hizkuntza eta idazketa akademikoko gutxieneko maila, **ez-gai** kalifikatuko da, eta beste amaierako txosten bat aurkeztu beharko da ezohiko deialdira.

Matrikulatuta egon arren, Practicumeko irakasgaietan **ez-aurkeztua kalifikazioa** jarriko da honako kasuetan:

- ez-aurkeztu praktikak egin behar dituen erakundera ez doanean edo Praktiken Dekanordetzaren baimenik gabe doanean.
- entitate batera doanean, zentro hori eta fakultatean tutore bat esleitu ez dizkiotenean.
- ohiko deialdian finkatutako epean amaierako txostena entregatzen ez duenean.
- Plagio susmoak berekin ekar dezake atzera botatzea amaierako memoria eta, ondorioz, Practicuma ez gainditzea. Etika akademikoari buruzko  [UPV/EHUren protokoloa](#) aplikatuko da.

